



KING KONG TEORIA

Virginie Despentes



UXUE ALBERDIREN ABESTIA JARRI: [KONPLIZE DITUT ETA](#)

IPURZURIEN KONTRAKARREAN

Christine de Pizan -1405-Paris- Damen Hiria horixe da emakume batek tradizioaren kontra idatziriko lehen liburuetako bat, genero-kontzientziaren aitzindaria/ Iraultza, emakumeentzat, irauntza izan zen: Besteak Beste iraun zuen/ Despentesek agerian uzten du bortxaketa ustez bakarrik dela delitua sistemaren logikan-7- BORTXATUAREN TRAUMAK, ALDIZ, USTEZKOA EZ BAIZIK BENE-BENETAKOA IZAN BEHAR DU, ETA HORREGATIK DAGO HAIN EDERKI LANDUA OROTARIKO FIKZIO-LANETAN, PSIKOANALISIA BARNE/ AEBetan, biktima haurdun uzten duten bortxatzaileek haurraren gaineko eskubideak dituzte 31 estatutan/ Itziar Diaz de Ultzurrun

NESKA GAIZTO ARMATUAK

Feminitatearen galtzailearen figura ez zait bakarrik maitagarria egiten, ezinbestekoa ere egiten zait-16-Nire bizitzan maite dudana guztia, salbatu nauen guztia, nire gizentasunari zor diot/

POPATIK EMANGO NIK ZURI EDO ZUK NIRI?

Literaturako emakumeak, errealtatean, Trevelyan irakasleak azpimarratzen duenez, giltzapetu, jipoitu eta arrastaka erabiltzen zituzten.

Aspaldi honetan, Frantzian, errietan ari zaizkigu jo eta ke 70eko hamarkada dela-eta. Errieta egiten digute gizonak beldurrez daudelako/Nire adineko emakumeak lehenak dira sexurik gabeko bizitza bat eraman dezaketenak komentuaren laukitxo hautatu gabe/motxinbero pinpirinen jokamolde berria: Badut aukera bestela bizitzeko, baina alienaturik bizitzea erabaki dut eta sedukzioaren estrategiarik eraginkorrena erabiliko dut-27-Gure independentzia zeharo kaltegarria dela da hezurretaraino tinko sartua dugun sinesmena/ Adierazi nahi izatea gizonak eta emakumeak hobeto konpontzen zirela 70eko hamarkadaren aurretik gezur historikoa da-28-Haurrik gabe, zorion femininorik ez, baina ia ezinezkoa izango zaizue haurrak baldintza egokietan haztea/ Arlo kolektiboa gizonen eskumena da oraindik / Eremu politikoa bazter utzi izanak, hala egin dugu-eta, agerian uzten du gu geu uzkur garela gure emantzipazioari begira-30-Ahaztu egin behar dugu goxoa eta atsegina izateaz, beti laguntzeko prest egoteaz; geure buruari baimena eman behar diogu bestea menderatzeko, jendaurrean/Kolektibitatearen antolabidearen erreplika etxetiarra: Estatuak, gure zaindari gero eta arduratsuagoak, guk baino hobeki daki zer egin denetan/ Ama guztiz ahalduna izan asmo duen Estatua faxismora lerratzen den Estatua

da-31-Gorputz kolektiboak norbanakoaren gorputzaren moduan funtzionatzen du. Estatu gaixo batek ematen duen boterea ezinbestean da susmagarria/Zer behar da , zehatz--mehatz, gizon bat, gizon egiazko bat izateko? Emozioak itoaztea/ Ulertu behar dugu zertan diren gutxiespen mekanismoak eta nola bihurtarazi gaituzten geure buruaren zaindaririk finenak, biztanleria guztiaren kontrol-mekanismoak (kapitalismoarenak) ulertzea ere bada.

EZIN DA HAIN EMAKUME BIZIOTSUA BORTXATU

AEBetan, hasiera batean, goi klaseetako gizonak babesteko eratu ziren bortxaketaren aurkako legeak, oro har, gizon haien emazteak edo alabak erasoetatik babesteko.(Angela Davis, 1981)

Beldurraren sexua gara, umiliazioarena, sexu arrotza-38-beren gizontasuna gure gorputz baztertuen gainean bermatutako ituna da/emakumea bizirik ateraz gero, seinale kontua ez zitzaiela hain desatsegina/ bizitza militarra talde-bortxaketan aritzeko ohiko abagunea da, gerra-estrategia bat/ Bortxaketak ez du lasaitasuna urratu, hiriaren osagaia de-eta-41-/ Txakurren legea gizonen legea da/ Dagokion izena ez daraman bitartean, erasoak bere berezitasuna galtzen du, beste eraso batzuekin nahas daiteke.../

BORTXAKETAREN ONDOKO HASIERAKO URTEETAN, USTEKABE TRISTE BAT: liburuek ezin izango dizute lagundu-43- baina trauma horrek ez zuen tokirik literaturan/ ez zen esparru sinbolikora igarotzen/ CAMILLE PAGLIAk dio bortxaketa hartu beharreko arriskua dela , gure izaera femeninoak berezkoa duela/ Paglia lehena izan zen ja gertatu izana ukazioaz eta hiltzeaz baino harekin bizitzean jartzen zuena gakoa-46- Bortxaketan beti frogatu behar izaten dugu ez gaudela inolaz ere ados/

EZ DA INONDIK ERE PENTSATU BEHAR INDARKERIA BORTXAKETAREN AURKAKO KONPONBIDEA DENIK-47

Antzinatek datorren lanketa politiko zorrotz batek beren burua ez defendatzen irakasten die emakumeei/ gerora, sinetsita nago beste modu batean erantzungo nukeela gure jakak ebasten saiatu izan balira, hau da, bortizki/ Neska txikiak gizonei inolaz ere minik ez emateko bezatzen dira/ Gizonek ez dakite noraino den geldiezin neskak zikiratzeko makineria/ Horra hor haien barruko lasaitasunaren sekretua/-50-

ZER DEFINITUKO LUKE GIZONTASUNA EZ BALITZ EMAKUMEAK ZABALIK ETA BELDURREZ JARRAITZEA?

Bortxaketaren ostean norberaren aurkako indarkeria da onartzen den jarrera bakarra/

SAKRIFIZIO-ERRITU NAGUSIA IZANIK, ARTELANETAN NON-NAHI AGERTZEN DA, ANTZINAROTIK.

BORTXAKETA PROGRAMA POLITIKO ZEHATZ BAT DA: KAPITALISMOAREN HEZURDURA, BOTEREAREN ERABILERAREN IRUDIKAPEN GORDIN ETA ZUZENA-52-Politikaren xede nagusia: gizasemeak hezte sinets dezaten beren izaera gizartez kanpokoa, bulkadazkoa eta izugarria dela/ suntsitzen gaituenak erakartzen gaituenez, beti gaude boteretik urrun-54-

ETSAIAREKIN LOTAN

PROSTITUZIOAREN HITZARMENA KONTU ARRUNTA BILAKATZEN BALDIN BADA, GARBIAGO IKUSTEN DA ZER DEN, IZAN, EZKONTZAREN HITZARMENA-60-Minitelaren bidez izan nuen aurreneko lana/ Mundu berri bat ezagutu nuen, non diruaren balioa bestelakoa zen. Jolasean jolasten diren emakumeen mundua/ Lan baldintzei begira luxuzkoa zen/ gizon asko ez dira puta batekin daudenean bezain atseginak izaten inoiz/ lan hau, erabat isil-gordean egin daitekeena, ondo ordaindutako ogibide bat besterik ez da prestakuntza gutxi edo batere ez duen emakume batentzat-69-Prostituzioaren etapa erabakigarria izan da, nire kasuan, neure burua berrosatzeko bortxaketaren ondotik-72-Puta izateak nik uste baino gehiago apaldu dit haien kontrako agresibitatea/Amorru ematen didana ez da gizonak zer diren edo zer egiten duten, baizik eta zer galarazten edo zer eginarazten didaten/zaila da uztea, soldatapeko izatea berriro/ Azken finean oso antzekoa da emakumeek beren gorputzekin egiten dutena, gizon boteretsuak eta dirudunak inguruan izan orduko/Sexu ordaindua dela-eta,morala mintzen duena ez da emakumeak plazerik ez sentitzea, baizik eta sutondotik urruntzea eta bere dirua irabaztea-78-Maitasunetik kanpoko sexua beti da umiliagarria, emakumeentzat/Prostituta pobreak, umiliatuaren, esklaboaren irudia oso baliagarria da zenbait eginkizunetarako/ Bezero ar heterosexualaren eta putaren arteko harremana, sexu arteko kontratu sano eta argia da. Horretxegatik zaildu beharra dago era artifizialean-80- Gizonak gutxietsitako sexu-objektu baten aurrean baino ezin dute garatu beren sexu-indar osoa/ debekatzen badugu prostituzioaren legeztatzea bi debeku ezartzen dizkiogu emakumezkoen gizarte-mailari: aberastea eta beren estigmatizaziotik probetxu ateratzea-82-Frantzian bultzatzen den BASAMORTU TEORIKOA estrategia bat da familia egitura klasikoa ahalik eta gehien babestearen/Bada egiazko lotura bat idaztearen eta prostituzioaren artean : askatzea, egiten ez dena egitea...(honek idazleontzat balio du baita ere)/ idatziz kontra egiten diot tradizioz esleitu diguten tokiari: emakume pribatua izatea, gizonaren jabetza, erdia eta itzala/Gizonek emakume direla amets egiten dutenean, gogotsuago irudikatzen dute beren burua noranahi joateko aske diren puta eta emakume gisa, etxeko garbitasunaz arranguratzten diren ama familiakoak baino/ Esaten denean prostituzioa emakumeen aurkako indarkeria dela helburua da ahaztea HORI EZKONTZA BERA DELA BAITA/

PORNO SORGINAK-87-

Pornoa sexu-desira zailtasunik gabe abiarazten den mekanismoa da-91- Zentsura da benetan pornografiaren historia taxutu, asmatu eta finkatu duena, ariketa hagitx interesgarriak egin behar direlako zentsura hori saihesteko/Horiek horrela, emakumearen DUINTASUNA eremu zabaleko zuri-bidea da sexu-adierazpena murriztu asmo den aldiro/ Gizonen libidoa babesteko, objektu desiratua bere tokian gelditu beharra dago, hots, hezur-mamirik gabe eta, batez ere, isilik/ dena antolatu beharra dago beste ezer egiterik izan ez dezaten aktorea pornoek-94-Klase borroka da/Giscard Destaingek 70eko hamarkadan debekatu zituen film pornoak arrakasta handia zutelako/ Ez da pornografia eliteak ernegatzen dituen, pornografiaren demokratizazioa baizik/Pornoa antsiolitiko bat da/ Zergatik da pornoa gizonena ez beste inoren pribilegioa?/Geure(emakumeon) alderdi basatia ezagutu ez dezagun formateatu gaituzte-101- Gizonak dira emakumeen gorputza neurritz kanpo balioesten eta gorensten dutenak/

KING KONG NESKA-105-

2005ean, King kong pelikularen eskutik zinema eta pornografiarako prestatzen da jendea/ elkar babesten dute, sentsualitate samurrez/King Kong metafora bat da, emeaz eta arraz haraindikoa da, hibridoa da, bitasuna nahitaez ezarri aurrekoa/Gaur egun arazoa da indarkeria eta sexua ezin direla irudikapenaren bidez bezatu/199an Egidazu larrutan argitaratzen dut/tarte batez harrigarria egingo zait ohartzea zenbat jendek dakien bereizten zer egin behar duen, eta zer ez, neska batek hirian-113-Emakumeak ez maitatzea , gizona bazara, jarrera bat da. Gizonak ez maitatzea, emakumea bazara, patologikoa da/ Debekatu beharra dago-eta hiru aktorea pornok eta puta ohi batek bortxaketari buruzko film bat egin dezaten-115-Ederki ezagutzen dugu, bai, lelo hori, gertatzen zaizunaren arduradun sentitu behar duzula sinetsarazi nahi dizuna/Emakume boteredunak dira gizonen aliatuak, hobekien belaunikatzen direnak eta zabalen egiten dutenak irri haien nagusitasunaren azpian-117- Badakigu zer-nolakoa den bere bahitzailearekin identifikatzen den bahituaren sindromea/ Niri, Bruce Leeri ez bezala, inguruko artaburu zakil txikiak etortzen zaizkit erronka jotzera/ Hainbat urtetako ikerlan on, leial eta zintzo baten ondoren, hauxe da nire ondorioa: FEMINITATEA (ez feminismoa) putakeria da-120-Berriketan aritzea femeninoa da. Arrastorik uzten ez duen guztia bezalaxe/ Punk-rocketik nator eta harro nago ondo egokitu ez izanaz-125-

AGUR, NESKAK

Emakume idazle baten lehen betebeharra etxeko aingerua hiltzea da (Virginia Woolf)

Antoni Artaudek sinatutako gutuna: Neurea baizik ez den emakume bat behar dut, une oro etxean aurkitu ahalko dudana/ Nire boterea ez da sekula oinarrituko gizakiaren beste erdiaren menderakuntzan/ Idazlea naizen aldetik, eremu politikoa ni mantsotzeko eta ni desgaitzeko antolatzen da, baina ez gizakia naizen aldetik, baizik eta emakumea naizen aldetik/Sexu ahularen kontua txantxa bat izan da beti/Mundu kapitalista gainbehera doan honetan,....., emakumeak omen oraindik ere erantzuleak: gure askapena da gizonak dohakabe sentiarazten dituen-133-Errua ez du gainean ezarri diguten sistema politikoak, emakumeen emantzipazioak baizik/ Zeren badakigu gizonak zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta gutxiago esaten dutela/ Gizonak gizonak maite dituzte/ zeren zain daude bata besteari ipurtzulotik emateko?/Noizko gizonezkoen emantzipazioa?/Iraupenaren, adorearen eta erresistentziaren sexua, beti izan da gurea/Feminismoa abentura kolektibo bat da, emakumeentzat, gizonentzat, eta gainerakoentzat/

Donostia, 2019-03-29